

EBAZPENA, 2024ko azaroaren 15koa, Uraren Euskal Agentziaren zuzendari nagusiarena, Komunikazio teknikari lanpostua betetzeko prozesuaren Kalifikazio-epaimahaiko kideak izendatzen dituen.

Uraren Euskal Agentziaren zuzendari nagusiaren 2024ko azaroaren 6ko Ebazpenaren bidez, Uraren Euskal Agentzian Komunikazio teknikari lanpostu behin betiko betetzeko eta lan-poltsa eratzeko hautaketa-prozesuari buruzko IRAGARKIA argitaratu zen 2024ko azaroaren 14ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (EHAA 222. zk.).

Uraren Euskal Agentziako komunikazio teknikari lanpostua betetzeko hautaketa-prozesua arautzen duten oinarrien seigarren oinarrian zehaztutakoari jarraituz, Uraren Euskal Agentziaren zuzendari nagusiak izendatutako epaimahai batek ebaluatuko du prozesua.

Horiek guztiak horrela,

ERABAKI DUT

Lehenengoa.- Uraren Euskal Agentziaren komunikazio teknikaria hautatzeko prozesuko Kalifikazio-epaimahaiko kideen izendapena egitea.

	Titularra	Ordezkoa
Presidentea	Eneko Albizuri Laucirica (Uraren Euskal Agentzia)	Iraia San Saturnino Murua (Uraren Euskal Agentzia)
Mahaikidea	Iban Zubeldia Rodriguez (Añarbeko Urak)	Yolanda Rodríguez Couso (Ihobe)
Idazkaria	María López de Heredia San Julián (Uraren Euskal Agentzia)	Lorena Baranda Gómez (Uraren Euskal Agentzia)

Bigarrena.- Ebazpen hau Uraren Euskal Agentziaren web-orrian (www.uragentzia.euskadi.eus) argitaratzea.

Gasteiz,

Asier López Etxebarria
Zuzendari nagusia
Uraren Euskal Agentzia